

POS-B05

*PD en Agrobiología Ambiental***BABES PROGRAMA BATEN ERAGINKORTASUNA ZERBITZU EKOSISTEMIKOEN BALIOAN: URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBA**

Nekane Castillo-Eguskitza, María F. Schmitz, Miren Onaindia, Alejandro J. Rescia

Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Universidad Complutense de Madrid (UCM)

Azken sei hamarkadetan Urdaibai Biosfera Erreserban pinu eta eukalipto landaketen ondorioz gertatutako lurzoru erabilera aldaketek, kontserbazioa eta garapen ekonomikoaren arteko gatazka areagotu dute. Aldaketa horiek Biosfera Erreserbak eskeintzen dituen zerbitzu ekosistemikoen balioan eragindako inpaktuak kuantifikatzea baliagarria izan daiteke, erabakiak hartzen dituztenei aholkatzeko eta lurraldearen iraunkortasuna sustatzeko. Horretarako, lurzoru erabilera aldaketak aztertu ditugu 1965, 1983 eta 2009. urteetan eta zerbitzu ekosistemikoen balio ekonomikoa estimatu dugu jadanik existitzen den literaturan oinarrituz. Era berean, zerbitzu ekosistemikoen balio biofisikoak eta ekonomikoak alderatuz, lehentasunezko zonaldeak identifikatu ditugu, beti ere, Biosfera Erreserba figuraren eraginkortasuna aztertzeke helburuarekin. Emaitzek erakusten dutenez, zonaldea 1984. urtean babesteak nukleo guneen babesa bermatu du, baina hauetatik kanpo, zerbitzu ekosistemikoen balioa %25a jeitsi egin da. Hori dela eta, zerbitzu ekosistemikoek gure ongizatea hobetzen dutela kontuan hartuta, kudeaketa politikek ekosistemen multifuntzionalitatea nabarmendu behar dutela iradokitzen dugu, eta zerbitzu ekosistemikoak suspertzeko ekintza batzuk proposatzen ditugu.